

HITZAURREA

DOI: 10.1387/lan-harremanak.15391

Gure aldizkariaren ale honetan biltzen dira Bilbon, 2015eko ekainaren 16an eta 17an, Lan Harremanen eta Lanaren Zientzien Ikastegien Elkarteak (ARELCIT) eta elkarte horren lehendakaritza daukan UPV/EHUko Lan Harremanen U.Eskolak egindako II. kongresuan aurkeztutako ponentzia eta komunikazio batzuk. Oro har 100 partaide baino gehiago bertaratu ziren.

«Lan harremanek gizarte-ekonomia eta ekonomia solidarioaren aurrean duten erronka» izan zen Kongresuaren izenburua eta programa, gaurko errealitateak azterketa sakon bat behar duelako.

Hasiera eta amaierako ekitaldietan UPV/EHUko Errektorea eta beste toki batzuetako agintariak egon ziren. Kongresua Laurent Vogelek ireki zuen «Situación de la seguridad y salud laboral en las relaciones laborales en Europa» hitzaldiarekin, eta Yayo Herrero Lopezek itxi: «Algunas respuestas a los retos de una economía al servicio de las personas» hitzaldiarekin.

Beste 9 ponentzia egon ziren, bai eta 4 lan taldetan aurkeztutako komunikazioak ere. Lan taldeak honako gai hauei buruzkoak izan ziren:

1. Espainiako lan harremanen ereduak dituen aldaketak: banakakoan, kolektiboan eta Gizarte Segurantzaren prestazioetan.
2. Gizarte eta solidarioak diren ekintzaileak: alde batetik, gizarte langintza eta enpresa solidarioko kooperatibetako enpleguaren kantitatea eta kalitatea eta, bestetik, kontratu publikoak ematerakoan gizarte irizpideen garrantzia.
3. Enpleguak zein gizarte prestazioek izan dituzten murrizketak, bai kantidadarekin ikuspegitik bai eta kalitatearen ikuspegitik ere.
4. Irakaskuntza: genero eta sostengarritasunari buruzko gaitasunen irakasteko programazioa eta ebaluazioa.

Ángel ELÍAS ORTEGA